

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3204

*218/2022 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Gabilondo Azpiri andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako osasun mentaleko zentroetako unitateburu, aldi baterako, lau urte luzagarriz.*

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 5eko 12/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako osasun mentaleko zentroetako unitateburu lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez. (2022ko martxoaren 7ko EHAA 47. zk. eta 2022ko martxoaren 14ko BOE 62. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, María Gabilondo Azpiri andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako osasun mentaleko zentroetako unitateburu.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Gabilondo Azpiri andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Andoaingo eta Tolosako osasun mentaleko zentroetako unitateburu aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du eta luzatzeko aukera egongo da, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat. Izendapenak 2022ko ekainaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espediente badago, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareari.

2022ko uztailaren 14a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-  
kideztako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA  
argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko ekainaren 6a.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,  
ALVARO IRUIN SANZ.